



**NEGUKO OPORREN ETA URTE BUKAERA/HASIERAREN AITZAKIAN
KANTATZEKOAK**

ZERRENDA

Neguari abesten, Ene kantak:

- Neguko oporrak
- Afaria
- Nor ote?
- Urtaro zuriko emakumea
- Elurra mara-mara
- Olentzero buru handia (hiru hauen nahasketa da: Olentzero joan zaigu; Horra, horra; Olentzero buru handia)
- Ole Olentzero

Neguko haur kantak, Kurkuluxetan:

- Galtzagorriak
- Hatoz gurekin Mari Domingi
- Elurra teilatuan
- Neguko oporrak

Ikastolaren Gabon kantak liburuxka:

- Hator, hator
- Olentzero, buru handia
- Gabon gauean
- Ari naizela
- Eskerra

Pirritx, Porrotx eta Marimotx "Musua":

- Mari Domingi
- Olentzero eta astoa
- Olentzero, salda bero!

Samaniego kantari:

- Kax kax kax atean



ZERRENDATIK AUKERATUTAKO BATZUEN HITZAK

1- NOR OTE? ([Neguari abesten, Ene kantak](#))

Nor ote Olentzeroren laguna
Nor ote poliki datorrena (berriz)
Gaixorik ere onenen pare, hemen dugu aurten ere!
Nor ote Olentzeroren laguna
Nor ote poliki datorrena (berriz)
Bi hanka baino gehio ditu "eskerrak lau dituen" du aditu
Nor ote Olentzeroren laguna
Nor ote poliki datorrena (berriz)
Olesera dator gurekin, bada ez bada loturik
Nor ote Olentzeroren laguna
Nor ote poliki datorrena (berriz)
Zamaz gainezka kaleetan, elurra nahiz eguzkitan.
Nor ote Olentzeroren laguna
Nor ote poliki datorrena (berriz)
Belarri eta buztan luze, kexatu gabe gauera arte
Nor ote Olentzeroren laguna
Nor ote poliki datorrena (berriz)

2- OLENTZERO BURU HANDIA ([Neguari abesten, Ene kantak](#))

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Horra, horra,
gure Olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arrautzatxoekin
bihar meriendatzeko botila ardoakin (berriz)
Olentzero buru haundia
entendimenduz jantzia
bart arratsian
edan omen du
hamar arruko zagia.
Ai urde tripa haundia!



Trailara lara trailara lara (berriz)
Horra, horra,
gure Olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arrautzatxoekin
bihar meriendatzeko botila ardoakin (berriz)

3- ELURRA TEILATUAN ([Neguko haur kantak, Kurkuluxetan](#))

Elurra teilatuan
zakua lepoan
ibili beharko degu
aurtengo neguan.
Riau, riau, riau
riaukataplau...
Hau dek umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.
Elurra teilatuan
abarra basoan
taloak erretzeko
irina auzoan
Riau, riau, riau
riaukataplau...
Hau dek umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.

4- HATOR, HATOR (Ikastolaren *Gabon kantak* liburuxka)

Hator, Hator lagun etxera
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaua ospatuzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka
amaren poz ta atseginez.
Eragiok, lagun, aurreko danbolin horri.
Gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli txapla, pum!
Gabon gaua pozik igaro daigun



5- GABON GAUEAN (Ikastolaren *Gabon kantak* liburuxka)

Gabon gauean ohitutzen dugu
guztiok afari ona:
bixigu, legatz, bakailu saltsan,
bakoitzak berak ahal duna.
Gero txurrut plin-plan,
ardo ta pattarra,
katuak katuka,
sagu-saguka.

6- ESKERRA (Ikastolaren *Gabon kantak* liburuxka)

Agur, eskerrik asko,
Agur, etxeakoak.
Hurrengo urte arte
hemendik bagoaz,
hemendik bagoaz.
Gaur da Olentzero ta
bihar Eguberri.
Etxeko andre maitea,
txanpon bat edo bi,
txanpon bat edo bi.

7- ARI NAIZELA (Ikastolaren *Gabon kantak* liburuxka)

Ari naizela, ari naizela,
nekatu zaizkit ezpainak.
Etxe hontatik espero ditut
sei erreal ta gaztainak.

8- OLENTZERO ETA ASTOA ([Musua](#), [Pirritx](#), [Porrotx eta Marimotots](#))

Olentzero ta astoa
basora joan dira
bidean galdu eta haserretu dira.
Olentzerok astoai belarritik tira
astoak Olentzeroi praketatik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.
Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.
Olentzerok astoai belarritik tira



astoak Olentzeroi praketatik tira
Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

9- OLENTZERO SALDA BERO ([Musua, Pirritx, Porrotx eta Marimotots](#))

Oles aro, gaur da gabona.
Olentzaro, zatoz hona.
Orantzaro, hau zoriona!
Zurekin bai tratu ona!
Aitonarentzat hodeiak, aitarentzat euria
amak beretzat nahi du ilargia
amonarentzat, berriz, neguko eguzkia
ta niretzat beste guzti guztia!
Oles aro, gaur da gabona.
Olentzaro zatoz hona.
Orantzaro, hau zoriona!
Olentzero salda bero!

10- KAX, KAX KAX ([Samaniego kantari](#))

Kax, kax, kax atean
Nor dabil etxean?
Ikusi makusi
Nor naizen ikasi
Praka zabalak
atorra urdina
Ai ene! Ez dakit ezer, ez, ez, ez
Ai ene! Kontatu mesedez.
Kax, kax...
mutur zikina,
txapela beltza.
Ai ene! Ez dakit ezer, ez, ez, ez
Ai ene! Kontatu mesedez.
Kax, kax...
Pipa ahoan
ardoan bertan
Bai, bai, bai, lehen orain eta gero
Zu zara gure Olentzero.



11- URTARO ZURIKO EMAKUMEA ([Neguari abesten, Ene kantak](#))

Urtaro zuriko emakumea
eskarmentuko artzain andrea
euskaldun guztiok dugu begiko
maiteko dugu beti-betiko!
Maiteko dugu beti-betiko!
Mari Mari Domingi goxoena
Mari Mari Domingi ausartena
Mari Mari Domingi eztiena
Mari Mari Domingi azkarrena.
Beldur uxalari gau ilunetan
Ondoan dela dirudi benetan.
Urtaro berde, urdin ta marroian
Mari Domingi nahi dut ondoan!
Mari Domingi badut ondoan!
Mari Mari Domingi goxoena
Mari Mari Domingi ausartena
Mari Mari Domingi eztiena
Mari Mari Domingi azkarrena.
Urtaro zuriko emakumea
eskarmentuko artzain andrea
euskaldun guztiok dugu begiko
maiteko dugu beti-betiko!
Maiteko dugu beti-betiko!

12- MARI DOMINGI ([Musua, Pirritx, Porrotx eta Marimotots](#))

Erdi sorgin erdi lami
beldurrik ez basoari
lanean kantu kantari
ipurmasailak dantzari.
Anbotoko Mari
besotik heldu ta dantzan doa
haitzuloz haitzulo
ezetz geratu lo!
Goizero jaiki orduko irrintzi
buruzapia askatu erantzi
gonak alderantziz jantzi
bera da Mari Domingi!
Erdi sorgin erdi lami
Mari Domingi
sustrai azpitik lainoz gaindi

NEGUKO KANTAK
2022KO ABENDUA



bihotza bera bezain handi.
Goizero jaiki orduko irrintzi
buru zapia askatu erantzi
gonak alderantziz jantzi
GU GARA MARI DOMINGI!!!